

48 15

BIZKAIKO IRLAK



Bizkaiko irlak: 1. Gaztelugatxe (Bermeo). 2. Aketx (Bermeo). 3. Izaro (Bermeo). 4. Txantxarramendi (Sukarrieta/ Pedernales). 5. Garraitz (Lekeitio).

Irla bat urez inguratutako lur zati bat da. Bizkaiko kostaldean hainbat irla txiki existitzen dira: Gaztelugatxe (edo Gaztelugatx), Aketx, Izaro, Txantarramendi eta Garraitz. Horietako batzuk lurrarekin zubien edo dikeen bidez lotuta daude. Biztanleak dituen bakarra Txantxarramendi irla da.



Ortoargazkia 2010. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. PNOA. Aketx irlatxoa (edo Akatx). UTM 30N ETRS89 // X: 518156 m// Y: 4811008 m.

AKETX IRLATXOA

San Juan de Gaztelugatxeko ipar ekialdetik 700 kilometrora kokatuta dago. Bermeoko jurisdikziopean dago, eta aipatutako herriko hirigune nagusitik 5 kilometroa kokatzen da, ipar mendebaldean. 300 x 158 m dimentsioak eta 100 metroko gehienezko kota dauzka. Azalerarekiko altuera handian dagoenez, malda handiak ditu eta horregatik oso zaila da bertara iristea. Horrenbestez, ez du biztanlerik eta bertan itsas hegaztiak bakarrik bizi dira. Begetazioa ere nahiko urria da.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 524876 m // Y: 4804596 m. Txantxarramendi irla.


TXANTXARRAMENDI IRLA

Oka ibaiak bere bokalean osatzen duen itsasadarrean kokatuta dago (Gernikako itsasadarra), kostaldetik 60 metrora bakarrik. Kostalde h arekin zubi baten bidez lotuta dago. Giltzurrun nolabaiteko itxura dauka, eta 285x114 metroko triangelu batean kokatuta dago, 28.000 m^2 ingurukoa. Bere gehienezko kota 10 metrokoa da. Sukarrieta udalerrikoa da (Pedernales), eta Urdaibai Parke Naturalean eta UNESCOko Biosfera Erreserbaren barne dago.

Bizkaian, erabiltzen diren erakinak mantentzen dituen bakarra da, hain zuzen ere, AZTIko egoitza, alegia, Eusko Jaurlaritzako ikerketa erakundea, iparraldeko muturrean kokatuta. Gainontzekoa, berriz, Kantauriko artadi bitxi batez okupatuta dago, zenbait gurbitzarekin. Eta baita parke botaniko batekin ere.

Aspaldiko garaietan jarduera handiko hotel-bainuetxe bat izan zen ere (1896-1947).

Bizkaiko Foru Aldundiko eskutan amaitu zen eta 1999. urtean Eusko Jaurlaritzari eskuordetu zitzaion. Horrez gain, haztegi eta hondarra eta karea garraiatzeko kargatzaile baten aztarnak ere ditu.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 540876 m // Y: 4801663 m. Garraitz irla (Lekeitio) itsasbeheran.


GARRAITZ IRLA

Baita San Nikolas izenekoa ere. Lekeitioko hirigunetik 200 metrora kokatuta dago, senadi txiki bat itxiz. 5 hektareako hedadura dauka, eta 420x200 metroko (52.000 m^2) eta 45 metroko gehienezko kotako triangelu batean inskribatu daiteke. Itsasbeheran, kostaldearekin lotzen da dike txiki baten sendotutako tonbolo baten bidez. Aipatutako dikea ere uraren barruan geratzen da itsasbeheran.

Hegoaldean, San Nikolas ermitako aztarnak aurki daitezke (XV. mendekoa) eta baita karobi batena ere. Erdialdean gotorleku bat aurkitzen da, bi bateriekin, eta iparraldean, berriz, bateria bat, kuartel batekin eta munizio ordezkoekin. Horrez gain, frantziskotarren monasterio bat ere bada (XV eta XVIII. mende bitartean). Pinu-saila bat dauka (*pinus pinaster*).



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G. Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Garratiz irla, itsasbeheran, kontinenteari lotuta tonbolo baten bidez.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 525661 m // Y: 4808077 m. Izaro irla.

IZARO IRLA

Gernikako itsasadarraren aurrealdean kokatuta dago, 3100 m Bermeoko ekialdean eta 2000 m Mundakako ipar ekialdera. Bermeo udalerrikoa da eta Urdaibaiko Parke Naturalaren barruan dago.

Triangelu isoszelez itxura dauka, ipar mendebalderantz orientatuta, 222 m oinarrikoa eta 560 m altuerakoa (49.000 m^2). Itsas mailaren gaineko gehienezko kota 20 metrokoa da. Ez du biztanlerik, baina eraikin txikietako hondakinak kontserbatzen dira.

Bere tradizioen artean Santa Magdalena (uztailak 22) jaietan urtero ospatzen dena aurkitzen da. Hura Bermeoko alkateak, irlatik gertu, teila bat jaurtitzean datza, Mundakako eta Elantxobeko alkateen aurrean, irla hura Bermeoko udalerriari, zalantzarik gabe, dagokiola adierazteko helburuarekin.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Izaro irla; hego mendebaldean, Mundaka; mendebaldean, Bermeo.